# Ur-lurruna

## Zergatik itsasten da ura edalontzi hotz baten kanpoaldean?

### Materialak

– Edalontzi garden eta lehor bat
– Kronometro bat
*Hozkailua erabili behar duzu.*



### Zer egin

1. Sartu edalontzia hozkailuan bi minutuz.
2. Atera edalontzia hozkailutik, eta itxaron minutu batez. Zer ikusten duzu edalontziaren kanpoaldean?

### Zer gertatzen da?

Ia beti dago ur-lurruna airean. Edalontzia hozkailutik ateratzean, airean dagoen ur-lurrun epelak edalontzi hotzaren alboak kolpatzen ditu. Lurrun epela hoztean, likido bihurtzen da. Gasa likido-egoerara itzultzeko prozesuari kondentsazio deritzo.

